

- ❖ Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Bezeroekin izango dugun harremana automatizatua izango da, ordenagailuko web-aplikazio baten bidez. Hau da, laguntza pertsonala bilatzeko den web-aplikazioa izango da.

Autozerbitzu bat izango da, bezeroak bakarrik zerbitzua erosteko eta eskaintzeko ahalmena edukiko dute. Ahala ere, argibide sekzio bat jarriko dugu webgunean azalduko duena bakoitzak egin behar duen prozesua eta chat bat dudaren bat badute gurekin kontaktatzeko nahiz eta sare sozialetatik ere kontaktatu ahal izan.

Lehen aipatu bezala, bezero berriak sare sozialen (tiktok, instagram) bitartez lortuko ditugu eta jendearen ahoz ahozkoaren bitartez erakarriko ditugu. Noizean behin webgunean aldaketak eta deskontuak eginez mantenduko ditugu bezeroak.